



Iruñerriko Mankomunitatea

Chinchilla jenerala kalea, 7 (atzealdea)
31002 Iruña
Tel.: 948 423 285/194
Faxa: 948 423 230
Webgunea: www.mcp.es

Eskaerak kudeatzeko
Tel.: 948 203 444
E-posta: mcpactividades@gmail.com



Ikastetxea

Telefonoa

Faxa

Posta elektronikoa

Jardueren laburpena ikusteko, joan 8. orrialdera

Kodea | **Jarduera**

Maila

Ikasle kopurua

Gazt. / Eusk.

Nahiago den data

Ordua

Taldeko arduradunaren izen-abizenak

E-posta baieztapena eta informazioa jasotzeko

Kodea | **Jarduera**

Maila

Ikasle kopurua

Gazt. / Eusk.

Nahiago den data

Ordua

Taldeko arduradunaren izen-abizenak

E-posta baieztapena eta informazioa jasotzeko

Kodea | **Jarduera**

Maila

Ikasle kopurua

Gazt. / Eusk.

Nahiago den data

Ordua

Taldeko arduradunaren izen-abizenak

E-posta baieztapena eta informazioa jasotzeko

Heziketako behar espezifikoak, ordutegi murriztapenak eta abar dituzten ikasleei buruzko oharrak:

Eskaerak bidaltzea. Eskaera-orria fotokopiatu eta bidali faxez edo posta elektronikoz:

- Fax bidez: 948 423 230 (Ingurumen-heziketarako programarentzat)

- mcpactividades@gmail.com

Eskaerak jasotzeko azken eguna. 2011ko urriaren 31 baino lehen.

Baieztapena. Astebeteko epean zure eskaera aintzat hartu dugun esango dizugu telefonoz.

Informazioa. Tel. 948 203 444.



Arduraz jokatzeko ingurumenerako heziketa

Eskolako Ingurumen-heziketarako Programa Iruñerriko ikastetxe, kolektibo eta partikularrei zuzendutako heziketa-eskaintza da. Xedea Urari, Hondakinei, Garraioari eta Iruñerriko ibai-parkeari lotutako jardueretan, kanpainetan eta prestakuntza prozesuetan parte hartzea da.

4. or.
**Kontsumoa,
hondakinak
eta birziklapena**

- Arte-sormena hondakinak erabilia:
ibai bat

6. or.
**Iruñerriko
ibai-parkea**

- Parkea zentzumenen bidez:
Atarrabiako eremua
- Parkea zentzumenen bidez:
Barañaingo eremua

7. or.
**Ura:
hornidura eta
saneamendua**

- Nondik dator edaten dugun ura?

8. or.
**Jardueren
laburpena**

Zer helburu du?

Hezkuntza komunitateak ingurumenari buruzko kontzientzia eta horren inguruko interesa **hartzea**, baita egun dauden arazoetarako konponbideak bilatzeko zein etorkizunean agertu daitezkeenak saihesteko beharrezko ezagutzak, jarrerak, jokabideak, motibazioa eta nahia banaka zein taldeka eskuratzea ere. (Ingurumen-heziketaren xedea, Belgradeko Gutuna, 1975).

Ingurumen esperientzia eta programak egin daitezela **sustatzea**, Iruñerriko hurbileko ingurunean ezagutza eta analisi kritiko eta sormenezkoa helburu izanen dutenak.

Baliabide materialak eta aholkularitza tekniko eta didaktikoa **erraztea**, irakasleek zein ikasleek aipatu programak gauzatu eta euren informazio premiak bete ditzaten.

Zer eduki lantzen dira?

- Uraren Ziklo Integrala / Hornidura eta Saneamendua
- Kontsumoa, Hondakinak, Konposta, Birziklapena eta Berreskuratzea
- Garraioa eta Mugikortasun Iraunkorra
- Iruñerriko ibai-parkea
- Ingurumen-heziketa
- Naturako eta Hiriko Ingurumena

Zer zerbitzu eskaintzen ditu?

Dokumentazio zentroa
Kontsulta eta mailegua

Aholkularitza tekniko eta didaktikoa
Irakasle eta ikasleei zuzenduta

Material didaktikoen diseinua, koordinazioa eta edizioa

Sentikortasun-kanpainak eskola-esparruan

Ikastetxean hondakinak kudeatzeko baliabideak

- Ontziak, papera eta pilak biltzeko edukiontziak eta zakuak
- Ikasgeletan papera birziklatu eta berrerabiltzeko paperontzi eta erretiluak.
- Pilak biltzeko edukiontziak
- Materia organikorako konpost-ontzia, etab.
- Horma-irudiak, gaikako bilketaren eranskailuak, etab.

Jarduera-programa

Mankomunitateak kudeatutako instalazio eta espazioak bisitatzea.

Ibilbide gidatuak, instalazioak, eremuak eta sentikortasun-zentroak ezagutzeko helburu zehatza dutenak: burutzen diren prozesuak, funtzionamendua eta kudeaketa, ingurumenaren aldeko jarrera eta jokabideei buruzko hausnarketa ahalbidetzen duten jarduera osagarriekin batera.

Tailerrak

Lan proposamen dinamiko eta parte-hartzaileak, programa bakoitzeko eduki nagusiei buruzkoak, norberaren ardura eta erantzukizuna sustatzeko zein ingurumenaren aldeko jokabideak bereganatzeko.

Jardunaldiak

Goizeko saioak, instalazio batera edo ibai-parkera egindako bisitatik garatzen direnak; helburua eduki zehatzetan sakontzea da, sentikortasuna azpimarratuz eta jokabide eta ohitura arduratsuak sortuz.

Bisitak ingelesez

I+G programa baten barnean kokatuta, bertako irakasleek ingelesezko bisita gidatuak eskainiko dizkiete Bigarren Hezkuntzako ikasleei.

Parte-hartzearen datuak 2010-2011 aldiko emaitzak Iruñerriko zentroak

	HAUR HEZKUNTZA		LEHEN HEZKUNTZA		BIGARREN HEZKUNTZA		GUZTIRA	
	Ikastetxeak	Ikasleak	Ikastetxeak	Ikasleak	Ikastetxeak	Ikasleak	Ikastetxeak	Ikasleak
Hondakinak	34	1.638	65	8.746	47	5.726	146	16.110
Ibai-parkea	28	1.568	35	3.118	32	2.547	95	7.233
Ura	42	2.369	61	6.919	35	3.580	138	12.868
Garraioa			19	1.895	20	1.929	39	3.824
Guztira							128	40.035

BERRIA
ONLINEko IZEN
EMATEA!

WWW.MCP.ES

Jardueretan izena emateko,
gure webgunearen bidez
egin beharko da

Eskaerak *online* kudeatzeko aukera berria

Ikasturte honetan, jarduerak eskatzeko prozesua hobetze aldera, kudeaketa *online* egiteko aukera jarri dugu abian.

Kontu bakarra zentroarentzat

Zentro bakoitzari kontu eta erabiltzaile-izen bat emanen zaio; horren bidez, tramite guztiak egin, erreserben egoera egiaztatu eta aldaketak egiteko aukera izanen du. Zuzendaritza-taldeak behar duen informazioa izango du.

Jardueren katalogoa kontsultatzeaz gain, irakasleek ikasleentzako jardueren eskaera egin dezakete modu telematikoan, baita zentroaren erreserba-historiala aztertu ere.

Eskaerak egiteko laguntzailea

Sistema gidatu batek errazten du jardueren eskaintzan sartzea eta intereseko gaiak aukeratzea; halaber, zer hezkuntza-mailalara zuzentzen diren ere adierazten du.

Informazioa: 948 203 444

Kontsumoa, hondakinak eta birziklapena

Arte-sormena hondakinak erabilia: ibai bat

Tailerra ikasgelan 1. 2. 3.

Gaikako bilketak ikastetxeetan

Parte hartze-ko baldintzak

BERRIA! ONLINEko IZEN-EMATEA!

Jardueretan izena emateko, gure webgunearen bidez egin beharko da: www.mcp.es

Kontsumoa, hondakinak eta birziklapena

Arte-sormena hondakinak erabilia: ibai bat

Tailerra ikasgelan

Mailak 1. 2. 3.

Kodea 48 Iraupena 2 ordu Ordutegi librea Ikasurte osoa



DESKRIPZIOA

Eremu natural baten konposizio plastikoa egitea ikasleek erabilitako ontziak baliatuta.

PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ

- Talde/gela bat tailer bakoitzeko

HELBURUA

- Arte adierazpide kolektiboak sortzea ohiko hondakinak erabilia
- Hondakinak birziklatzea eta berrerabiltzea, kasu honetan ontziak

EDUKIAK

- Ontziak berrerabiltzea eta biziberritzea
- Gaikako bilketak ikastetxean

BALIABIDEAK

- Aurretik adostutako ontziak
- Kartoizko egitura inprimatua ibai bat birsortzeko

BETEKIZUNAK

- Zentroak eguneratua izan behar du *Gaikako bilketan parte hartzeko konpromisoa* (ikus hurrengo orrialdea)

Gaikako bilketak ikastetxeetan

Arte-sormena hondakinak erabiltuta: Ibai bat tailerrean parte hartzeko betekizuna



Ikastetxeetan, hondakinen ingurumen-kudeaketa helmen handiko praktika da Ingurumen-heziketari dagokionez. Hondakinen murrizketan eta gaikako bilketan aktiboki parte hartzen duten ikasleek ingurumenarekiko errespetuzko eta ardurazko jarrera garatzen dute. Gainera, jarrera hori beste eremu batzuetara erraztasunez zabaltzen dute.

Programak ikastetxeen eskura jartzen du ikastetxeetan paper- eta ontzi-bilketa kudeatzeko baliabide materialak zein hori ezartzeko eta garatzeko prozesuan beharrezkoa den laguntza teknikoa.



Triptikoa

Gaikako bilketan parte hartzeko konpromisoa



Programan parte hartzeko eta laguntza-baliabideak eskatzeko, ikastetxeek urtero berritu eta bidali behar dute parte hartzeko konpromisoaren inprimakia. Gaikako bilketan parte hartzeko konpromisoa duen triptikoa ikastetxeari bidaliko zaio ikasturtearen hasieran.

Iruñerriko ibai-parkea

Parkea zentzumenen bidez: Atarrabiako eremua Bisita 1. 2. 3.

Parkea zentzumenen bidez: Barañaingo eremua Bisita 1. 2. 3.

BERRIA! ONLINEko IZEN-EMATEA!

Jardueretan izena emateko, gure webgunearen bidez egin beharko da: www.mcp.es

Iruñerriko ibai-parkea

Parkea zentzumenen bidez: Atarrabiako eremua

Bisita Mailak 1. 2. 3.

Kodea 300 Iraupena 2.30 ordu Ordutegia 9,30 1.-3. hiruilekoa



Laguntzeko baliabidea: Bisita-gida

Bizia ibai-parkean



Ibai-parkeari buruzko dokumentazioa du barne, baita komiki bat eta jardueren koaderno bat ere.

BERRIA

Parkea zentzumenen bidez: Barañaingo eremua

Bisita Mailak 1. 2. 3.

Kodea 301 Iraupena 2.30 ordu Ordutegia 9,30 1.-3. hiruilekoa

DESKRIPZIOA

Paseatzeak, behatzeak eta eremu berde horien balioa ezagutzeak errespetuz goatzeko aukera ematen dute.

TOKIA

- Atarrabiako jolas-eremua (Donapeko zaldaina)
- Barañaingo jolas-eremua

PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ

- Bi talde/ikasgela bisita bakoitzeko
- Hiru talde/ikasgela, ostiraletan

EGUNAK

- Asteartetik ostiralera

HELBURUA

- Parkea ezagutzea eta berarekiko lotura afektiboak sortzea
- Naturarengana errespetuz eta modu ludikoan hurbiltzea, zentzumenen bidez

EDUKIAK

- Ibaia eta bere ingurunea
- Paisaiaren natur eta giza elementuak
- Informazioa bilatzea zentzumenen bidez

BALIABIDEAK

- Ingurunea behatu eta ezagutzeko paseo laburra
- Sentikortasun-jolasak: *Soinuak eta zaratak*, *Ikusi-makusi*. *Zer ikusi? Koloreak*, *Gauza arraroen bila*, *Mikro-txangoa lupekin* eta *Opari bat Andrés ahatearentzat*

Ura: hornidura eta saneamendua

Nondik dator edaten dugun ura?
Mendillorriko ur-biltegiak

Bisita 1. 2. 3.

BERRIA! ONLINEko IZEN-EMATEA!

Jardueretan izena emateko, gure webgunearen bidez egin beharko da: www.mcp.es

Ura: hornidura eta saneamendua

Nondik dator edaten dugun ura?

Mendillorriko ur-biltegiak

Bisita

Mailak 1. 2. 3.

Kodea 24 Iraupena 1.30 ordu Orduetgia 9,30 eta 11,15 1. eta 3. hiruilekoa Astearretik ostiralera



Laguntzeko unitate didaktikoa

Barrillo eta ura



Unitateak ondokoa biltzen du:

- Ikaslearen lan-koadernoak
- Irakaslearen gidaliburua
- Musika eta uraren soinuak biltzen dituen CDa
- Horma-irudiak
- Margolan artistikoak

Jardueran izena ematearekin batera eskatu behar da baliabidea

PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ

- Bi talde/ikasgela bisita bakoitzeko

HELBURUA

- Tokian dauden baliabideak aprobetxatzea uraren garrantzia eta ura zaintzeko beharra balioesteko
- Urak egiten duen bidea ezagutzea, hartzen denetik kontsumitzen den arte, eta behar bezala erabiltzen ikastea

EDUKIAK

- Ingurunea ezagutzea
- Ura edateko on bilakatzea
- Urak txorrotaraino egiten duen bidea
- Kontsumo arduratsuko ohitura eta erabilerak

JARDUERAK

- Bisita eta entzunaldia ur-biltegi zaharretan
- Bideoa: *Ura zure laguna da*
- Jarduera: *Nondik dator edaten dugun ura?* Maketa bat muntatzea
- Hamaietakoia eta denbora librekoa haur-parkean


BETEKIZUNAK

- Aldez aurreko prestaketa ikasgelan

Laguntzeko unitate didaktikoa: DVDa

Water is your friend

Ura zure laguna da



Ura zure laguna da DVDa ingelesez ere badago. Horrela, Mendillorri eta Artetan ikusi ahalko da, edota, nahi izanez gero, maileguan eskatu ikasgelan aurretik lantzeko

Jardueran izena ematearekin batera eskatu behar da baliabidea

**Arduraz jokatzeko ingurumenerako heziketa
2011/2012 jardueren laburpena
HAUR HEZKUNTZA**

**BERRIA
ONLINEko
IZEN EMATEA
WWW.MCP.ES**
Jardueretan izena emateko,
gure webgunearen bidez
egin beharko da

Kontsumoa, hondakinak eta birziklapena

Kod.	Jarduera	Iraupena	Erabilgarri	Ordutegia	Mailak
48	Arte-sormena hondakinak erabilia: ibai bat	2 ordu	Ikasturte osoa	Librea	1. 2. 3.

Iruñerriko ibai-parkea

Kod.	Jarduera	Iraupena	Erabilgarri	Ordutegia	Mailak
300	Bisita: Parkea zentzumenen bidez: Atarrabiako eremua	2.30 ordu	1. eta 3. hiru-hilekoak	9,30	1. 2. 3.
301	Bisita: Parkea zentzumenen bidez: Barañaingo eremua	2.30 ordu	1. eta 3. hiru-hilekoak	9,30	1. 2. 3.

Ura: hornidura eta saneamendua

Kod.	Jarduera	Iraupena	Erabilgarri	Ordutegia	Mailak
24	Bisita: Nondik dator edaten dugun ura? Mendillorriko ur-biltegiak	1.30 ordu	1. eta 3. hiru-hilekoak	9,30 eta 11,15	1. 2. 3.